

AIARALDEA *hemen*



MARI FELI ALDAITURRIAGA:
**“ETAre bilakaera militarra
ikusita, erakundea utzi eta
Belgikara joan ginen”** 10-11 or.

AIARALDEA JAIETAN:
**San Joan Astobitzako, Arakaldoko,
Sanpedropeko, Ugarteko eta
Aretako jaiei buruzko gehigarria**



**“Jendeari eskatu
nahi diogu epaitu
baino lehen,
gu ezagutzea”**



AMURRIO 2
**61 langile kaleratu nahi
ditu Valvospain-ltuarteko
zuzendaritzak**
Enpresa hartzekodunen
lehiaketan dago eta beharginek
borrokan jarraitzen dute

AMURRIO 2
**Zorra kitatzeko akordioa
erdietsi du Tubos
Reunidos enpresak**
Langileen ordezkariak
zuhurtziaz hartu dute albistea.
350 milioi euroko zorra da

AIARALDEA 3
**Larunbatean osatuko dira
eskualdeko udal gobernu
taldeak**
Talde bozkatuenek
gobernatuko dutela aurreikusi
daiteke herri guztietan

AIARALDEA 7
**Aiaraldear ugarik hartuko
dute parte hezkuntza
oposaketetan**
Igandean izango dute azterketa
BECen. Ia 8.000 pertsona
aurkeztuko dira probara

KIROLA 12
**Gentzane Aldai eta
Olgetan klubaren arteko
talka**
Emakumeek kirolean pairatzen
dituzten ezberdintasunak
azaleratu ditu gatazkak

KIROLA 13
**Bea Isasi eta Bernardo
Barcena Euskadiko bola
txapelkunak**
Kexaan jokatu zen
norgehiagoka iragan
asteburuan

 **GARBITEGIA**

Egunero 8:00etatik 22:00ak arte **AMURRIORDUÑA**

- Etxean garbitzea baino merkeagoa
- Garbiketak detergentea, leungarria eta oxigeno aktiboa barne hartzen ditu
- Makina erabilterrazak
- Zimurrik gabeko sistema
- Etxez etxeko zerbitzu aukera

696 653 393
669 157 526

URDUÑA
Maria Dolores Madaria 1, BEHEA

AMURRIO
Boriñaur kalea 2 (Eroski alboan)

**NEURRIRA
EGINDAKO
JAIETARAKO
PRODUKTUAK**

KAMISETAK, ZAPIAK, ...
BEHAR DUZUNA ESKATU
ETA LORTUKO DUGU ///

**SERIGRAFIA, BORDATUA,
BINILOA, INPRESIO DIGITALA**



 **Graf!k**

**PRODUKTU PROMOZIONALA
JANTZI ZERBITZUAK
MARKA KUDEAKETA///**

Telleria 2, LAUDIO
94 672 65 43
pro@grafiksarea.com
www.grafiksarea.com

herriz herri

Amurrio

61 langile kaleratu nahi ditu Valvospain-Ituarteke zuzendaritzak

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Bilera izan zuten Valvospain-Ituarteke langileek astelehenean enpresaren zuzendaritzarekin, fabrikaren egoeraren inguruan hitz egiteko. Bi gauza jarri zituen zuzendaritzak mahai gainean. Alde batetik, jakinarazi zuen enpresa iragan ostiralek dagoela hartzekodunen lehiaketan. Bestetik, Enplegua Erregulatzeko Espediente bat martxan jarriko duela iragarri zuen. Fabrikako buruek gaur bertan aktibatu nahi dute espediente hori, eta 61 langileren kaleratzea eragingo luke (fabrikan dauden langileen erdia baino gehiago).

Horrez gain, greba bertan behera uzteko eskatu die zuzendaritzak behargini, eta jakinarazi die soldatetan egonda-ko atzerapenak FOGASaren bi-

dez ordainduko dituztela (hau da, diru publikoa baliatuta).

Langileek, euren aldetik, "argiak ez izatea" leporatu diete enpresako buruei. "Balizko erosleak egongo lirakeela esaten digute, baina ez digute zehazten nortzuk diren eta ez digute inoiz ziurtatzen enpresaren aldeko apustua egingo duten".

Ekainaren 13an dute hurrengo zita, orduan bilduko baitira enpresa komiteko kideak hartzekodunen lehiaketaren administratzailearekin. "Enpresak eginiko proposamenarekiko dugun desadostasuna plazaratuko dugu bertan", aurreratu dute beharginen ordezkariak, eta nabarmendu dute ez dutela borrokatzeari utziko. "Kalean jarraituko dugu enpresak eginiko kaleratze plana bertan behera uzteko, gure lanpostuak defendatzeko eta gure soldaten alde borrokatzeko".

Tubos Reunidosek akordioa lortu du bere zorra kitatzeko

Testua
Aitor Aspuru Saez

Tubos Reunidos enpresak zabaldu du ados jarri dela bere hartzekodunekin eta 350 milioi euroko zorra kitatzeko plana onartu dutela.

Ines Nuñez de la Parte administrazio kontseiluko idazkariak jakinarazi du idatziz informazioa. Enpresaren arabera, akordioak lantegien etorkizuna bermatuko du epe motz eta ertainean. Hedabideek zenbait albiste idatzi dute azken egunetan eta adierazi dute entitate finantzarioekin adostasuna erdietsi dutela, bereziki, BBVAren. Izan ere, BBVA da akzioen jabeetako bat eta hartzekoduna, aldi berean, eta ez zegoen zorraren zati handi bat bere gain hartzeko prest.

Gauzak horrela, 5 urtetan luzatuko zaio enpresari epea zoz gehiena ordaintzeko eta

horrek erraztasunak emango dizkio Tubos Reunidosi, kapitala handitzeko beharrera heldu gabe.

Sindikatuaren erantzuna

Sindikatuak zuhurtziaz jaso dute albistea. Hala ere, langileen ordezkariak iturriek nabarmendu dute zuzendaritzak konpondu duela zuzendaritzak berak sortutako arazoa.

Erakunde sindikalek nabarmendu dute administrazio kontseiluaren erabakiek eragin zutela zorra eta 3 urtez lan hitzarmenik gabe egotea enpresan. Hau da, langileek uste dute eurak izan direla kaltetuak krisialdiaren ondorioz. Horrez gain, sindikatuak salatu dute ez zaiela akordioaren berri eman modu ofizialean. Bestalde, sindikatuko ordezkariak dakite nola eragingo dien egoera berriak lan hitzarmenaren negoziazioan.

Artziniega

Herrian egondako eraso arrazisten aurka mobilizatu dira

Testua
Aitor Aspuru Saez

Ostiralean egin zuten Artziniengan jazotako eraso arrazistak salatzeke elkarretaratzea. Dozenaka bizilagun bildu ziren udaletxe aurrean, Otsati elkarteak deituta. Bi izan dira herrian gertatutako erasoak. Horietako bat, larria izan arren, hitzez soilik izan da. Bestean Ertzaintza deitu zuten, baina azkenean ez zuten salaketarik jarri.



Dozenaka lagun bertaratu ziren ostiraleko elkarretaratzean. Otsati

#udariklik

Udako argazki lehiaketa



Kategoriak eta sariak


Talde argazkiak Osabarena Hotolean talde batentzako afarivako 75€-ko bonoa
Aiaraldea Hotel Orduña Plazan 2 laguntzat gana, gosaria eta spa zirkuitua
Mundua Guzurtegi jatetxean 2 laguntzat asteburuko menua

Parte hartzeko

Bidali zure lana irailak 21 baino lehen

688 848 152 telefonora edo @aiaraldea #Udariklik traolarekin

Bozketak fasea: irailak 22-29 · Sari banaketa: irailak 30



elkarrizketa

“Jendea itsaso



MAROKO HEGOALDETIK ETORRI ZIREN **SOFIAN TAYBI, MOHAMED OUAHALLOU, AMINE BAKADIR, MOHAMED OULGUIRAH** eta **SOLAYMAN ATABI**. URDUÑAKO ADINGABEEN ZENTROAN EGON ZIREN ETA ANTIGUAKO SANTUTEGIAN BIZI DIRA ORAIN. ALOKAIKIRUAN HARTZEKO PISU BATEN BILA ARI DIRA ORAIN.



Testua eta argazkia
Txabi Alvarado Bañares

Nongoak zarete?

Amine: Maroko hegoaldekoak gara bostak. Nire familian zortzi neba arreba gara, sei anai eta arreba bat dauzkat.

Mohamed: Nire familian sei anai gara.

Soufiane: Nik bi anai eta bi arreba ditut.

Mohamed: Nire familian zazpi anai gara eta ni naiz nagusia.

Nola iritsi zineten Aiaraldera?

Amine: Bi urte eta erdi daramat hemen. Sei hilabete igaro nituen Urduñako adingabeen zentroan, hamazortzi urte bete arte. Adinez nagusia bihurtu nintzenez atera nintzen bertatik. Bilboko aterpe batera joan nintzen gero, baina hiru egunen ostean bota ninduten, hori delako egon zaitezkeen gehienezko denbora. Kalean bizitzera pasa

nintzen orduan. Ezin duzu imajinatu nolakoa den bertako bizitza: dirurik gabe, janaririk gabe, bakarrik...

Eta nola itzuli zinen Urduñara?

Amine: Bertako tren geltokian lo egiten hasi nintzen. Urduñan bazegoen lagundu ahal ninduen jendea, baina Bilbon ez, ez nuelako inor ezagutzen. Orain Antiguako santutegian dagoen etxeetako batean bizi naiz, nire lagunekin. Etxebizitza baten bila ari gara, baina oso zaila da topatzea. Jendeak ez digu alokatu nahi, pertsona txarrak izango bagina bezala begiratzen gaituzte “moroak” izateagatik.

Gainontzekoen kasua antzekoa da?

Amine: Bai. Mohamedek 9 hilabete eman zituen adingabeen zentroan, beste Mohamedek lau hilabete eta Soufianek 7. Ni izan nintzen zentrotik ateratzen lehena. Erresidentzia txartela dugu, baina ez digu lan egitea

baimentzen. Txartelean bertan jartzen du ezin dugula lan egin.

Mohamed: Alperrak garelara diote baina ez da egia, ez digute lan egiten uzten.

Amine: Lan baimena eskuratzeko hiru urte eman behar ditugu erroldatuta, baina hiru urte erroldatua igarotzeko beharrezkoa da urtebeteko lan kontratu bat izatea. Nola nahi dute orduan lan egitea? Oso gogorra da. Laguntzarik izan ezean oso zaila da aurrera ateratzea. Nik ikasketak egin berri ditut, baina ez didate titulu ofizialik emango erresidentzia baimena izan arte.

Nolakoa da bizitza adingabeen zentroan?

Mohamed: Zentroan egoteko beharrezkoa da ondo portatzea. 12 euro ematen zizkiguten astero. Erretzaileak zirenek horretan xahutzen zuten diru guztia. Besteek, aldiz, gorde egiten dute, zentrotik ateratzean biziraun ahal izateko. Formazio ikastaroetan aritzen ginen egun

elkarrizketa

“a ikusi dugu dan hiltzen”



“Lanaren eta bizitza eta etorkizun hobe baten bila etorri gara”

batzuetan. Kurtzorik ez genuenean, aldiz, goizeko bederatzia aldera jaikitzen ginen. Zentroan dauden adingabeak dira bertako kudeaketaz arduratzen direnak. Bazkariak prestatu, garbitu... hainbat lan-taldetan banatzen ginen gauza guztiak egiteko. Sukaldari bat zegoen egiten genuena kontrolatzeko. Ni sukaldean nengoen, adibidez.

Zentrotik atera nintzenean Urduñako bizilagun batekin bizitzera joan nintzen -Aintzane Okeranza-. Nire hasierako asmoa Bilbora joan eta bertako aterpean hiru egun igarotzea zen, baina Aintzane bere etxean hartu ninduen.

Jendeak dio kalean bizi diren gazte marokoarrek lapurtu egiten dutela. Noski lapurtzen dutela, bestela gosez hiltzen direlako.

Antiguako santutegian bizi zarete. Nola iritsi zineten bertara?

Soufiane: Hona bizitzera etorri ginenean mutiko bat topatu genuen, goiko solairuan bizitzen zegoena. Arazo

asko zituen drogekin. Oso urduri zegoen eta gauetan ez zigun lo egiten uzten. Gatazkak izan genituen berarekin, hainbat aldiz erasotu gintuen. Azkenean alde egin zuen.

Hona bizitzera etorri ginenean etxebizitza oso modu prekarioan zegoen antolatuta. Lan handia egin behar izan genuen dena atontzeko.

Amine: Ikasten gabiltza orain. Gutako hiruk zurgintza ikastaroa amaitu berri dugu. Mohamedek, aldiz, iturgintza ikasi du eta elektrizitate kurtso bat hasi berri du. Horrez gain, gaztelera klaseak jasotzen ditugu Urduñako Helduentzako Eskola Publikoan. Ane Miren izeneko neska batek ere ematen dizkigu klaseak, astean behin.

Mohamed: Jendeak uste du “deskonektatzeko” etorri garela hona. Ez gara horretara etorri. Lanera eta bizitza eta etorkizun hobe baten bila etorri gara. Egoera oso zaila da Marokon, baina hemen ere ez da samurra. Eta bidaia ere ez zen gozoa izan.

“Alperrak garela diote baina ez da egia. Lan baimena eskuratzeko hiru urte eman behar ditugu erroldatuta, baina horretarako beharrezkoa da urtebeteko lan kontratua izatea”

Nolakoa izan zen bidaia?

Mohamed: Lehenbizi autobusa hartu genuen Maroko hegoaldeko Tangererraino joateko. Patera hartu genuen bertan, Tarifaraino. Bakoitzak bere bizipen propioak izan zituen bertan. Nire kasuan, Espainiara iristean menditik ibiltzen egon nintzen, arratsaldeko lauretatik egunsentira arte. Poliziekin egin nuen topo orduan eta laguntza eskatu nien. Adingabeen zentro batean sartu ninduten. Madrileran eramantzen ninduten gero, Madrildik Bartzelonara, Bartzelonatik Bilbora eta Bilbotik Urduñara. Zornotzako zentroan egon nintzen, baina oso denbora tarte labur batez. Urduñan egin genuen topo. Ez ginen ezagutzen, baina orain anaiak baino gehiago gara.

Amine: Nire bidaia apur bat ezberdina izan zen. Autobusa

elkarrizketa

hartu nuen Tangerrera, baina bertan urtebete eman nuen kalean bizitzen. Zazpi aldiz igo nintzen paterara, baina poliziak atzeman eta buelta ematera derrigortzen gintuen beti. Azken bidaian zorzea izan genuen. 24 mutil etorri ginen. Behin iritsita, asko ibili ginen mendian barrena, herrixka txiki batera heldu ginen arte. Bertan autobusa hartu genuen Almeriaraino. Astebete igaro genuen hirian, ez genuelako bidaiarekin jarraitzeko dirurik. Jendeari eskatzen aritu ginen Madrilera joateko txartela erosi ahal izateko. Bertan denbora gutxi egon ginen, Bilbora joateko autobusa hartzeko dirua lortu arte. Bertara iristean poliziarenagan jo genuen eta Urduñako zentrorera eraman gintuzten.

Mohamed: Nire bidaia antzekoa izan zen: Tangerrera-ino joan eta gero itsasoa zeharkatzeko hainbat saiakera burutu. Tarifako mendietan barrena aritu ginen. Pertsona batek bere etxean hartu ninduen gero, Almerian. Bilbora iristeko txartela erosi zidan.

Nolakoa da pateran bidaiatzea?

Amine: Oso zaila da. Hondartzan poliziak daude 50 metroko. Mendian barrena aritzen ginen, gauez. Adorea izan behar duzu pasatzeko. Itsasoan poliziak harrapatzen bazaitu ezin duzu korrikarik egin. Patera berehalakoan iristen zen, eta segituan igo behar ginen.

Mohamed: Berdin du zenbat jende dagoen. Pateran 20 pertsona sartzen badira baina 30 badaude 30ak igotzen dira.

Amine: Egin nuen bigarren saiakeran itsasoaren erdiraino iritsi ginen, eta 54 pertsona gindoazen. Zutik egin behar izan genuen bidaia.

Jendea hiltzen ikusi duzue?

Amine: Noski baietz, asko.

Mohamed: Nik hartu nuen pateraren aurrekoa hondoratu egin zen eta lau lagun hil ziren. Beldur handia eragin zidan horrek, ia ia atzera egiteraino.

Amine: Soufiane eta biok batera egin genuen azken zatia. Solaymanek (gurekin bizi den beste gazte bat) sekulako orbanak ditut besoan, kontzertinen eraginez.

Mohamed: Gure egoeran dauden gazteei esango nieke mafietatik ahal bezain beste urruntzeko. Polizia erosita dute.

Baduzue kontakturik zuen familiekin?

Amine: Bai, batzuetan.

Urduñan hainbat auzolan egin dituzue.

Amine: Bai. Aintzane 15 gaztez osatutako taldea sortu zuen, hainbat auzolan egiteko. Museoa dagoen tokia

txukundu eta margotu genuen. Hori baino lehen hiriko lorategietan aritu ginen, banku guztiak margotu genituen, plaza garbitu... lan andana egin dugu. Hiriko jendeari laguntzen ere egon gara. Auzolan horiek hizkuntza ikasteko balio izan digute.

Mohamed: Lanerako gogoak genituen. Ez genuen adingabeko zentroan egunero aspertuta egon nahi.

Etxebitza bilatzen ari zarete orain. Zergatik erabaki duzue Urduñan geratzea?

Mohamed: Herri txikitakoak gara guztiak, eta horre-

“Batera joan nahi dugu bizitzera. Baina oso zaila da toki bat topatzea, jendeak ez digulako pisua alokatu nahi”

gatik gogoko dugu Urduña.

Amine: Jende ona dago hirian. Laguntza bat jasotzen dugu, 346 eurokoa. Ni izan nintzen laguntza hori jasotzen lehena. Duela bost hilabete hasi nintzen jasotzen, baina lehenago ez genuen inolako diru-sarrerarik.

Gauzak hala, ezin dugu bakoitzak pisu bat alokatu, diru gutxi dugulako. Horregatik, batera joan nahi dugu bizitzera. Baina oso zaila da toki bat topatzea, jendeak ez digulako pisua alokatu nahi. Batzuk ezezkoa eman digute Marokokoak garela jakin bezain pronto, nahiz eta agerikoa izan pisua libre dutela. Jendeari eskatuko nioke gu ezagutzea, epaitu baino lehen.





GORETTI ESKALTZA

IRAKASLEA

Bizi osorako lanpostu baten truke

Ekainaren 16an, BEC-en. 1.867 plaza eta 7.988 eskaera jasota itxi da Hezkuntza Sailaren 2019ko Enplegu Publikorako eskaintza. Ez da makala, ordea, oposaketa eredu zaharkitu eta lehiakor honetan egin beharreko lana eta ahalegina (urteko programazio didaktikoa sortu, gaitegia osatu eta ikasi, kasu praktikoa prestatu eta onenean, programazioaren ahozko defentsara iritsi).

Prozesu amaitezina dirudien hau, oztopolasterketa ere bada. Norberaren irizpideen arabera argialetxe ezberdinetako gaitegiak bilatu, indarrean dagoen legediarekin osatu eta euskaratu behar dugulako. Nola liteke euskara ardatz duela esaten duten curriculum batean azterketa euskaraz zein gazteleraz egiteko aukera luzatzea, derri gorrezko hizkuntza eskakizuna C1 denean gainera; alegia, EGA edo parekidea? Horrenbestez, asko eskatzea al da euskarazko gaitegi eguneratu eta ofizial bat izatea? Horrez gain, urteetako lan eskarmentuari garrantzia kendu eta gaitasun memoristikoa ematen zaio. Ez al da kontraesankorra, ikasle kompetenteak bilatzen dituen Heziberriren garaian, "irakasle onenen" aukeraketa azterketa batera jokatzea? (bederen ebaluazio irizpide zehatz eta objektiboak bermatu, zer eta nola egin behar dugun jakiteko esku-bidea gutxienez iruditzen zait).

Aukerazkoa beharko lukeen prozesu honi, derrigortasun itxura hartzen diot poliki. Batetik gainditzen duenari "saria" emateko hautua egin duelako Hezkuntza Sailak lehendabizikoz aurten (ikasturte bateko lan esperientzia "opari"). Bestetik, Euskadiko Eskola Kontseiluak irakasleak oposaketetara derrigortzea eskatu duelako orain gutxi, prozesu honen prestakuntzan egon daitez-

keen hamaika egoera pertsonal (familia kontziliazioa, gaixotasunak, bat-bateko egoerak...) kontuan izan gabe.

Urteak eman ditugu zerrenda batean sartu ahal izateko, deiaren zain beste horrenbeste, mota guztietako jardunaldiak hartu, km-ak errepidean bete (istripuak, gasolina, bidesariak) etxetik urrun bizitzera joan (alokairuak, mudantzak) norberaren bizitza pertsonala albo batera utziz, etengabeko formakuntza eta ikasketak gauzatu, ikastetxeetan inplikazio maila amaitezina eskaini, metodologia berrikuntzak abiatu... Finean, azterketa bat saritzeko. Zertarako eta plaza lortuz gero aurretik esfortuz eskuratutako puntu guztiak galdu eta berriro hutsetik abiatzeko behin betiko lanpostua lortu arte.

Bizi osorako lanpostu baten truke bizitza bera albo batera uzten dugu, eta hala ere, egungo jendarte prekario honetan "pribilegiatuak" garela sentitzen dut ingurura begiratu eta soldata duin bat jasotzeagatik.

EPE eredu honen eraldaketa premiazkoa delakoan nago eta hezkuntza komunitate osoarekin elkarlanean burutu beharko da benetan hezkuntza kalitatea bermatu nahi bada. Espero dezagun iazko Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako oposaketen emaitzen txikizioak Hezkuntza Sailari hausnarketarako bidea ireki izana (guk irakasle gisara gure ikasle emaitzak egokiak ez direnaren beraien ardura dela pentsatu ordez, gure jardunean arreta jartzen dugun moduan).

Animo bidean gaudenoi, eta ez ahaztu oposaketa batek ez duela gure irakasle balioa xedatzen, ez behintzat indarrean dagoen eredu honekin!

Aiaraldear ugari oposaketen atarian



Datorren igandean egingo dute lehen azterketa. Eusko Jaurlaritza

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Hezkuntza publikoan aritzeko 1.867 lanposturen deialdi publikoa egin du Eusko Jaurlaritzak, Haur eta Lehen Hezkuntzetarako, musika kontserbatorioetarako eta hizkuntza eskoletarako irakasleak hautatzeko. 7.988 pertsonen parte hartuko dute postu horiek ebazteko oposaketetan. Barakaldoko BECen egingo da lehen proba, igande honetan -ekainak 16-.

Aiaraldean pertsona ugari batu dira ikasketak-maratoira. Sarai Perez Prieto da horietako bat. Duela bi hilabete hasi zen azterketa "serioski" prestatzen. "Hasiere batean ez nuen lan egiten eta nire asmoa zen azterketa hobeto prestatzea. Baina urrian lanean hasi nintzen Gasteizen jardun osoz, eta seme-alabak ere ditut gainera".

Gauzak hala, asteburuak baliatzen ditu audioarrak ikasteko. "Lan-talde bat osatu dugu oposaketetan parte hartuko dugunon artean". "Trebateza" izango da Perezen helburua, etorki-

zunean plaza lortzeari begira. Azterketari dagokionez, formatua aldatu beharko litzatekeela uste du. "Alde batetik, gaitegia oso zaharkitua dago. Gainera, gauzak buruz ikasi behar ditugu eta lan hori jada eginda daukagu: denok egin ditugu unibertsitateko ikasketak. Orain pisu gehiago eman diote kasu praktikoari baina, edonola ere, aldaketa handiagoa egon beharko litzateke".

Hurrengo erronka

Igandeko azterketa gainditzen dutenek bigarren erronka bati heldu beharko diote. "Maiatzaren 15ean programazio didaktikoa aurkeztu genuen. Lehen azterketa gaindituz gero programazio hori defendatu beharko dugu epaimahai baten aurrean", azaldu du Perezek.

Helmuga berdina da guztientzat: plaza lortu ahal izatea, zerrrendetan egoteak dakarren eze-gonkortasuna ekiditeko. "Aurten urte osoa eman dut toki berean, baina normalean aste batean ikastetxe batean aritzen zara eta hurrengoan beste batean, ez duzu jarraipenik".



Jabi Isasi



Suarekin argitutuko dute

Aiaraldean urteko gaurik laburrena

Hainbat jarduera egingo dira eskualdean udako solstizioa ospatzeko. Laudion jai giroa izango da nagusi San Joan Astobitzako jaietan (egitaraua hamabostekari honetan dagoen jaietarako gehigarri berezian ikusi daiteke). Urduñan, aldiz, Akelarrea egingo dute Gazte Asanbladako kideek, urtero bezala.

Otsemeak taldeak antzeko ekimena burutuko du Amurrrion. Udalak, bere aldetik, hainbat ekintza antolatuko ditu: ekainaren 22an uda-

ko solstizioa ospatzeko jaia egingo dute Aresketamendiko energia berristagarrrien parkean. Hurrengo egunean, aldiz, Urrutia jauregiaren alboan dagoen zelaian egingo dituzte jarduerak. Haurrentzako jokoak, txokolata jana, Aiar Dantzaren Taldearen emanaldia eta sua egongo dira, besteak beste. Orots erromeria arduratuko da gaua girotzeaz.

Bañueta auzoan ere egitarau oparoa prestatu dute bertako auzo elkarteek. Oroz-

kon, aldiz, erromeria egongo da Puro Relajo taldearekin Zubiaur plazan. 20:45ean "ikuskitzun piromusikala" eskainiko dute, eta jarratian erreko dute Pirulo. Arakaldon ere panpin bat erreko dute bertako bizilagunek: Espartero jenerala irudikatzen duen figura da, aurreko urteetan bezala.

Egitarau eta ekintza guztien gaineko informazio eguneratua Aiaraldea.eus atarian topatu daiteke.

MUSIKA

06.14 Ostirala
19:00 OROZKO
TRIKITI, PANDERO ETA
TXALAPARTA IKASLEEN
EMANALDIA
Orozkoko eskola

06.14 Ostirala
20:00 AMURRIO
GASTEIZKO JOSE
URUÑUELA ESKOLAREN
DANTZA IKUSKIZUNA
Amurrio Antzokia

06.14 Ostirala
22:00 AMURRIO
AMURRIOCK
TXAPELKETAREN II.
EDIZIOAREN FINALA
Juan Urrutia plaza

06.15 Larumbata
19:00 AMURRIO
AMURRIOKO UDAL DANTZA
ESKOLAREN IKUSKIZUNA
Sarrerak 2 eurotan saigai
Kultur etxean
Amurrio Antzokia

06.16 Igandea
19:00 AMURRIO
AMURRIOKO UDAL DANTZA
ESKOLAREN IKUSKIZUNA
Sarrerak 2 eurotan saigai
Kultur etxean
Amurrio Antzokia

TAILERRA

06.13 Osteguna
18:30 ARTZINIIEGA
BORONDATE AUERRERATUEN
TAILERRA
Udaletxe zaharra

06.15 Larumbata
12:00 LAUDIO
LAMUZA IKASTETXEAREN
50. URTEURRENA
OSPATZEKO BAZKARIA
Aldai plaza

06.16 Igandea
BARANBIO
AHUNTZ EGUNA
7:30 // Mendi martxa luzea
8:15 // Ahuntzen XIII.
Lehiaketa
8:30 // Ahuntz azlenden feria
12:00 // Mendi martxa motza
13:30 // Meza Garrastatxuko
Santutegian
14:15 // Akerkoen pisatzea
14:15 // Ahuntzen XIII.
Lehiaketaren sari-banaketa
14:45 // Herri bazkaria
17:00 // Erroneria
Garrastatxu

06.20 Osteguna
12:00 URDUÑA
ZILARREZKO PERRETXIKO
Koldo Eceolazarik jasoko
du saria
Orduña Plaza hotela

INFO +
aiaraldea.eus

Tolo

Restaurant

EKAINA

15 17:00-23:00
ALDAI PLAZAN
· Igor Arzuaga
· Blues musika


UMEENTZAKO EKINTZAK

06.14 Ostirala
17:30 URDUÑA
EUSKARA PLAZARA:
KANTU KOLORE
Haur berbena
Foru plaza

06.15 Larumbata
11:30 ARTZINIIEGA
ARTZIENTZIA
Artziniega Museoa

06.21 Ostirala
17:30 URDUÑA
EUSKARA PLAZARA:

Hastear dago uda eskualdeko igerilekuetan



Hastear da udako igerilekuen denboraldia. Aiaraldean 7 udal igerileku daude: Artziniagakoa, Okondokoa, Laudiokoa, Urduñakoa, Amurriokoa, Orozkokoa, Laudiokoa eta Etxaurrenekkoa. Ekainaren 15ean irekiko dituzte guztiak. Egunotan, ordea, bazkidezeko epealdia zabaldu dute zenbait tokitan, Hautetako batzuetan, gainera, musika emanaldiak eskainiko dituzte udan.

Orbekok eta Gaztetxeak, 18 urte batera



Orbeo Etxeak eta Laudioko Gaztetxeak indarrak batu dituzte euren 18. urteurrena elkarrekin ospatzeko. Ekaineko bigarren hamabostaldian egingo dituzte jarduera guztiak, hamar egunetan zehar.

Hainbat motatako ekintzak egingo dituzte: Hitzaldiak, kontzertuak, mendi ibilaldia, bizikleta martxa, Jedi Galaktikoa jaialdiaren proiezioak edota udako solstizioa ospatzeko sua, besteak beste.

Dantza Eguna Laudion, bigarren aldiz

Dantza Eguna egingo dute datorren ekainaren 28an -ostirala- Laudioko Al-dai plazan, arratsaldeko zortzietan. Itxarkundia Dantza Taldeak bideratu du ekimena, eskualdeko hainbat talde eta norbanakorekin batera. "Taldeen kideek ikasturtean zehar ikasi dituzten koreografiak plazaratuko dituzte", aurreratu du Aitziber Tempranok. Itxarkundiako kideak nabarmendu duenez, aurtien Laudioko Lautxirrinka irristaketa klubeko kideak batu dira egitasmora. Izaskun Del Cerro, Gaztela-Leoiko Zentroa, Itxarkundia eta Baisalako kideak ere arituko dira dantzan. Iaz egin zuten ekimena lehenbiziko aldiz, apirilean, Dantzaren Nazioarteko Egunaren testuinguruan. "Jendea asko gustatu zitzaion eta berriro egitea proposatu zuten, ikuskizuna urtero errepikatzea izango litzateke gure asmoa".

Igandean egingo dute Ahuntz Eguna Barambion



XXI. edizioa izango da aurtengoa, eta ohi bezala, feria antolatuko dute Antonio Deunaren omenez. Motorrak berotzeko solasaldia eta afaria eskaini zituzten ekainaren 8an Garrastatzuko santutegian.

Azoka, aldiz, datorren igandean egingo dute. 8:15ean hasiko da Azpigorri eta Azpizuri ahuntzen XIII. lehiaketa. 12:00etan izango da meza ordua Garrastatzuko elizan; eta 13:30ean ekingo diote akerkoen pisaketari. Sari banaketan ondotik, herri bazkariak gozatuko dute bertaratzen direnek. Erromeriarekin amaituko dute eguna, 17:00etatik aurrera.



Prekariatatearen aurkako martxa antolatatu du Ernaik

"Bizitzak bizi arazi, prekariatateari aurre egiteko martxan!" martxa prekarioa antolatatu du Ernai Aiaraldeak datorren ekainaren 14, 15 eta 16an. Saratxotik Aretaraino joango dira. Tubacex, Valbospain, Tubos Reunidos, Lidl eta Berriak supermerkatuetako langileei elkartasuna adieraziko diete, besteak beste. Martxan parte hartzeko bonoak 6 euroren truke eskuratu daitezke Ilargi, Txokogorri, Itxina eta Mugalden.

ZIRKO TAILERRA

Foru plaza

HITZALDIA

06.17 Astelehena
17:00 URDUÑA
"ELIKADURA OSASUNTU ETA ENERGETIKOA"
Alondeglia

06.18 Asteartea
19:00 LAUDIO
"EL SALTO DIARIO"
Orbeo Etxea

BESTELAKOAK

06.13 Osteeguna
18:00-20:00 LAUDIO
ASVIAMIE AIARALDEAREN BILERA IREKIA
Udaleko erabileraren itzuleko aretoa

06.14 Ostirala
19:00 URDUÑA
CIRI SANTAMARIAREN LANARI BURUZKO ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA
Alondeglia

06.15 Larumbata
LAUDIO
ORBEKOK ETA GAZTETXEAK 18 URTE
9:00 // Mendi martxa, Herriko plazatik buruz, Sare Antifaxistaren eskutik
20:30 // Kontzertuak: Piketa, Sons of Decay, Ballard, Titadine, Urguil, Puro Odlo, Ras, Reyerta eta Triames
Orbeo etxea

ZINEMA

06.17 Astelehena
19:00 LAUDIO
"EL SILENCIO DE OTROS"
Orbeo Etxea

06.21 Ostirala
19:30 AMURRIO
"MANTRA: SOUNDS INTO SILENCE"
Amurrio Antzokia

· Soul musika
· Flamenko eta Runba
· DJ

16 13:30
Kontzertu instrumental

22 20:00
La Trama Akustikoa

23 13:30
Kontzertu instrumental

29 22:00
Charlie Cosh
Rock bertsoak

30 13:30
Kontzertu instrumental

UZTAILA

6 22:00
Konfirmatzeke

7 13:30
Kontzertu instrumental

13 20:00
Denboraldi amaierako KONTZERTU SORPRESAK

14 13:30
Cowboy Country



Aldai enparantza, LAUDIO
☎ 672 23 50 65
www.tolobar.com

elkarrizketa

“Nire
Urte
bitan
ETA

MARI FELI ALDAITURRIAGAK (Laudio, 1945) ERBESTERA JO BEHAR IZAN ZUEN 70EKO HAMARKADAREN HASIERAN. BERE SENARRA, JOSE LUIS NAVARRO, ETA ERAKUNDEAN ZEGOEN ETA HORREK IPARRALDERA ERAMAN ZUEN HASIERA BATEAN. BIDEAN, TORTURA ZEIN KLANDESTINITATEA BIZI IZAN ZITUEN ETA, AZKENEAN, LAUDIORA ITZULI ZEN.



Testua eta argazkia
Aitor Aspuru Saez

Nola bukatu zenuen klandestinitatean?

Nire senarra eta biok beti uste izan genuen gauzak hobera aldatu behar zirela. Francoren diktaduraren garaia zen eta dena zen oso zaila. Gure iritzia zen, Euskadin bizi ginen neurrian, hemengo gizartea eraldatu behar zela. Guk uste genuen gauzak aldatu ahal zirela inor hil gabe, baina ETaren egoera bestelakoa izan zen gerora.

Josek Aceros enpresan lan egiten zuen eta aldi berean unibertsitatean ikasten zuen. Burgoseko prozesuaren garaian manifestazioetan parte hartu zuen eta politikan nahiko sartuta zegoen.

Garai horretan bi seme genituen jadanik, eta gero nire senarrak Josu Urrutikoetxea ETako militantearekin izan zuen harremana. Gure semeek 2 eta 3 urte bete behar zituztenean, abuztuaren 29an, zerbait larria gertatu zen.

Senarrak Seat 600 bat zuen, eta ekintza batean erabili zuen erakundeak. Egia esanda, komandoak ez zuen

horretarako asmorik. Propaganda garraiatu nahi zuten soilik. Baina udaltzain batek ibilgailua ikusi zuen eta susmagarria iruditu zitzaion. Atea irekita topatu zuen eta barruan giltza.

Guardia Zibilarekin harremanetan jarri zen eta ETako kideak agertu arte itxaron zuten. Horien artean zegoen Wilson. Guardia Zibilak atxilotu zituen kuartelera eramateko asmoarekin.

Komandoko batek pentsatu zuen kuartelera helduz gero, torturaren bitartez informazio guztia emango zutela. Orduan, pistolarekin Guardia Zibil bat apuntatu zuen eta agindu zion autoa gelditzeko, ihes egin zezaten. Tamalez, udaltzaina saiatu zen arma kentzen eta tirabira baten ondorioz, udaltzaina bera hil zen.

Basauriko ikaskide baten laguntzari esker joan ginen gertakarien lekura; senarra, Iñigo nire semea -bestea familiarekin zegoen- eta hirurok. Semeak autoa ezagutu zuen eta bistakoa zen egoerak ez zuela atzera bueltarik. Bilboko udaletxearen inguruan utzi genuen Jose. Berak eskatu zidan hitz egiteko lankide batekin dokumentazioa erretzeko lantegiko labean. Semea eta biok

trena hartzera joan ginen eta Basaurin eman nion mezua bere lankideari.

Etxera heldu nintzenez dena zegoen Guardia Zibilez beteta. Galdetu zidaten ea Jose Luis Navarroren emaztea nintzen. Etxe osoa miatu zuten.

Atxilotu zintuzten?

Nire koinatuaren etxean ere egon ziren, bera apaiza zen, eta bere esku utzi behar izan nuen Iñigo, Guardia Zibilak eraman baininduen La Salvera. Ni gela batean nengo bakarrak eta noizean behin Guardia Zibilak sartzen ziren. Batek polizia onaren rola egiten zuen eta besteak txarrarena. Esaten zidaten nire senarrak Frantziatik emakume batekin bikote berria izango zuela, edo atxilotuko nindutela eta semeak kendu.

Egun horretan komunera eraman ninduten eta bidean ikusi nuen nire neba. Oinak puztuta zituen, mota guztiko basakeriak egin baitzizkioten. Jose Luis Cuerda abokatuari esan zioten polizia konbentzitututa zegoela ezer ez zekiela, tortura horiekin zerbait jakin izan balu, kontatuko baitzuen.

elkarrizketa

“Nire senarra Josu rutikoetxearen arteaz sartu zen ETA erakundearen”



“Nire neba Juan Domingo basatiki torturatu zuen Guardia Zibilak”

Gero ziegetara bidali ninduten eta han nire neba Juan Domingorekin egin nuen topo, jende asko baitzegoen atxilotuta. Bera apur bat geroago askatu zuten. Gero ni ere libre utzi ninduten. Erabat galdu nuen denboraren neurria 3 egunen ostean.

Nire neba askatu baino lehen, Josek mezua helarazi zidan bisitatu zuen lagun baten bitartez. Esan zidan elizara joan behar nintzela egun jakin batean, han apaiz batek bere eskutitza emango zidan eta. Gizon hori eskuindarra zen, baina, aldi berean, fededuna, inoiz ez gintuen salatu.

Eskutitz horri esker jakin izan nuen Iparraldean zegoela, Urdaxetik igaro ostean. Ez zen txantxa hori egitea. Izan ere, hurrengo zeharkaldian tiroketa egon zen leku berean.

Orduan laurak hasi zineten erbestean bizitzen.

Bai, lagundu gintuen Josek eta biok elkar asko maite genuela eta ondo moldatzen ginela, bestela ezinezkoa izango litzatekeen. Iparraldean Mugalde liburu denda antolatu zuten modu arrakastatsuan. Francoren minis-

tro batek ere bertara bidaltzen zuen txoferra liburu politikoak erostera.

Gero, ETArekin bilakaera militarra ikusita, Josek erabaki zuen militantzia uztea. Ondorioz, Belgikara jo genuen. Belgikan Espainiako etorkinak ezagutu genituen: galiarrak, Extremadurakoak... Garcia Lorca zentroan topatzen ginen Bruselan. Bestelako bizitza egiten genuen, eta ez zen arazorik gertatu ETArekin; gero, ordea, bai, Yoyesen kasuan bezala.

“ETA utzi arren, harremana genuen Argalarekin edota Txomin Iturberekin, eta Jose ‘Pertur’-en lagun mina zen”

Noiz itzuli zineten Euskal Herrira?

1977an. ETA utzi arren, harremana genuen Argalarekin edota Txomin Iturberekin, Jose "Pertur"-en lagun mina zen.

Laudiora itzuli ginenean Jose alderdi komunistan zegoen eta HBko askorentzat traidorea eta espainolista hutsa zen. Berez, bueltatu eta gero, norbaitek informazioa ematen zion ETArekin Joseri buruz, atentatua prestatu nahi baitzuten. Txomin Iturbek agindu zien ETArekin kideei Jose bakean uzteko. Are gehiago, Txomin Iturbek lagun baten bidez jakinarazi zion Joseri nork eman zuen informazioa. Pertsona horren senarrarekin eta ezker abertzaleko agintariekin hitz egin zuen Josek gauzak argitzeko.

Handik gutxira hil zuten Yoyes. Berez, Yoyesen hiletan ezagutu genuen Gipuzkoako jende bat eta eurei antzeko zerbait gertatu zitzaien. Une horretan oso jende intolerantea zegoen ETAn, gehienbat gazteak.

Orain 40 urte inguru igaro direla, nola baloratzen duzu zure bizitzaren aro hori?

Jende askok esaten du ETA ez zela existitu behar. Hala ere, aldi berean, uste dut sozialki eragina ez zela negatiboa izan. Pizgarria izan zen.

Nik ez dut uste hiltzea bidea denik, baina ETArekin erakutsi zuen borrokaren bitartez gauzak aldatu behar zirela sozialki. Jendea hiltzen bizitzak kentzea besterik ez duzu lortzen, baita amorrua, gorrotoa eta indarkeria sortzea.

kirola

Olgetan elkarteak oharra atera du Gentzane Aldai emakume pilotariak hedabideetan eginiko adierazpenak gezurtatzeko. Idazki batean bildu ditu pilotariak argipenak, “komunikatu faltsu eta iraingarria” dela-eta. Orozkoko Mugimendu Feministak oharra zabaldu gertatutakoa salatu eta “emakume* kirolariei babesa emateko”.

Olgetan eta Gentzane Aldai Calonge: emakume kirolarien egoeraren bi aurpegi



Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

Olgetan elkartearen irainak salatu ditu Gentzane Aldai Calonge pilotari Orozkoarrak. Herriko pilota elkarteak oharra atera du Aldaik hedabideetan eginiko adierazpenak gezurtatzeko. “Orozko guztian jarri dituzte paperak: tabernetan, komunetan... Olgetanen komunikatu iraingarri eta faltsuaren aurrean, gertatua argitzea beharra ikusi dut, adierazpenik egin nahi ez nuen arren”.

Azken hilabeteetan emakumeen eskupilotak hartutako oihartzunaren baitan harrotu ditu hautsak. “Emakume Master Cup-ek eginiko apustuari esker, nesken eskupilotak boom mediatikoa hartu du. Ni ez naiz pilotaririk onena, baina elkarrizketa ugarirako deiak jaso ditut”.

Pilotari gisa bere ibilbideagatik galdetu izan diotenean, Orozkoko Olgetan klubean “lagun artean” hasi zuela aipatu du beti Aldaik, oharrean nabarmendu duenez: “Jolastea gustatzen zitzaidalako hasi nintzen, sexu bereizketarik sumatzen ez banuen ere, emakume izateagatik ez bainuen inolako oztoporik ikusten (garai hartan)”. 12 urte zituela utzi zuen kluba erabaki propioz: “Nire adineko mutilekin ezberdintasun fisikoa izaten hasi nintzen, eta nire egoera berean zeuden emakumeekin lehiatzeko aukerarik ez zen existitzen”.

Polemikaren erroan 2017ko urriaren 1eko mezu bat dago. Emakume Master Cup-en izena ematea erabaki zuen, eta astean behin Olgetanekin entrenatzeko aukeraz galdetu zuen elkartearen. Aldaik oharrean jakinarazi duenez -jatorrizko mezuak erantsita honako erantzuna jaso zuen, hitzez hitz: “Zail ikusten dut, entrenamenduak itxita baitaude Klubeko kideekin. Nik gozua pilota hartzea eta plazan suabe pilotatzea gomendatuko nizuke. Eskuak landu pixka bat. Horrekin nahikoa duzu. Entrenatzaileak



Gentzane Aldai Calonge pilotaria, partida batean. Jose Asensio Larrinaga (Copyright)

ezer gutxi ahalko dizu lagundu. Eskuak gutxi gorabehera egokitzean eskolako kide ohiekin geratu... eta partida batzuk jolastu, suabe beti. Edozer dela ere komentatu”. Orduetik ez du Olgetaneko kideekin aferarekiko elkarrizketarik izan. Hedabideetako solasaldietan, sarritan galdetu diote emakumezkoen eskupilotan ea desberdintasunik dagoen. “Jakina dagoela, nire bizi osoko klubera entrenatzera itzuli nahi izan nuenean ezin izan nuen, eta nire lagunekin plazara jolasten joateko erantzun zidaten”, aitortu du Aldaik. Mingarria izan zaio ukapena sentitzea, “baina ez dut uste hori erantzun zidanak intentzio txarrarekin egin nuenik”.

Olgetanen adierazpena

Olgetan elkarteak, bere aldetik, larrizat jo ditu Gentzane Aldaik hainbat hedabideetan eginiko adierazpenak. Batetik, Klubak ez duela sekula neska izateagatik gutxietsi adierazi du: “Ez legoke gaizki esker aitortza txiki bat egitea bera pilotari delako norbaitek Orozkon pilota kluba sortzea erabaki zuelako”.

Olgetanen hitzetan, 12 urterekin jo zuen futbolera Aldaik, eta geroztik ez dute bere berririk izan. “Duela urtebete klubeko

lehendakariari deitu zion, gure entrenatzaile batekin prestatu nahi zuelako. Ikasturtea klubak antolatu zuela azaldu genion, ezin genuela entrenamenduak bertan behera utzi, bazkideek lehenasuna dutelako”. Olgetanen aburuz, leku faltagatik ukatu zitzaion entrenatzeko aukera, eta hori ez da diskriminatzea: “ez du mailarik osatua dagoen talde batean entrenatzeko”. Ildo bereetik, azpimarratu dute elkartearen emakume pilotari gehiago egon direla, eta tratatu berdina eman zaiela uneoro. “Gentzane Aldai bezalako pertsonak gu ez desprestigiatzeko borrokan jarraituko dugu”.

Orozkoko Mugimendu Feministak, bestalde, oharra atera du “emakume* kirolarien egoera” salatzeko. Mugimendu Feministaren ustez, mehatxuak, irainak eta erasoak jasan dituzte zenbait andrek. “Orozkon, beste leku askotan bezala, kirolaren eremua gizonentzako sortu den eremua da. Emakumeok, kirolean ere, emakume izate hutsagatik zapalduak, gutxietsiak, uneoro epaituak eta presionatuak gara. Eta hau gutxi balitz, emakumeok* kirolaren munduko ateak itxita topatzen ditugu askotan parez pare”, erantsi dute.

Orozkoko Mugimendu Feministak oharra plazaratu du pilotariari babesa adierazteko



MARIA SANCHEZ MADOZ

PILOTA EPAILEA

Plazak eta frontoiak gureak dira!

Feminismoak gorakada bat izan duela ezin da ukatu, baina olatu horren barruan ito egin dira pertsona, talde, eragile edo elkarre batzuk, olatu honetara batu beharrean. Honen adibide argia dira etengabe ematen ari diren emakume kirolarien zapalkuntzak eta bereizketak; edota hauei ahotsa eman eta salaketak publikoak egiteko, gaur egun, existitzen eta lanean jarraitu behar duten taldeak.

Kirol munduan, emakumeok gaurak birritan demostratu behar ditugu: gure motxila bikoitza da, pisu handiagoa du. Kirolari onak garelako erakusteaz gain, emakume izateagatik hori egiteko gai garelako ere demostratu beharra daukagu, hau da, bertan egoteko kapaz garelako. Baina hori ez da nahikoa izaten, eta askotan eskaintzen zaizkigun aukerak ez dira berdinak izaten, bigarren plano batean geratzen gara, azken ordu-tegiak ditugu, entrenatzeko aukera ezberdinak edo aukera ezak, sariak ezberdinak eta txikiagoak dira, jarriera matxistak...

Pilotaren mundua, jatorriz, gizonen mundua izan da edo hori da saldu egin digutena, baina gauzak aldatzen doaz eta geroz eta emakume gehiagok egiten dute pilotari gisa jarraitzeko edota pilota munduan garatzeko apustua. Hala ere, ez da erabaki erraza, batzuk albo batera egiteko prest ez baitaude, hau bermatzeko, azken egunetan Azkoitian gertatutakoa besterik ez da ikusi behar edo Gentzane Aldai orozkoarraren kasua.

Baina ez gaude hau onartzeko prest, gurea dena hartu eta berreskuratu behar dugu. Plazak hartzen hasi ginen eta azken aldian frontoiak hartzen aritu gara, nahiz eta zenbaiten gustukoa ez izan. Argi izan ezazue ez dugula kirolean aritzeko baimenik behar, eta ez dugu eskatuko.

HONDARTZA FUTBOLA

Gotzon Palacios hondartza futbol epaile elite mailan

Jadanik debuta egin du laudioarrak. @gotzonpa

Testua
Aitor Aspuru Saez

Gotzon Palacios Arrugaeta izan da Euskal Herriko epaile bakarra baimena lortu duena Estatu Espainiarreko hondartza futboleko ligan eta kopan aritzeko. Zehazki, kirol mota horren elitean epaituko du. Izan ere, zenbait talde amateurak

badira ere, beste batzuk -Levante UD, Recreativo de Huelva edo Cadiz- profesionalak dira eta munduko txapelketak jokatzeo aukera izan dute, laudioarrak azaldu duenez.

Debuta Saloun egin zuen, Espainiako ligako hainbat jardunalditan. Horrez gain, Alicanten eta Murtzian epaitzeko hautatua izan da.

MARATOIOA

Urduñako Mendi Maratoia, bertan behera

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Larunbatean hasi zen III. Urduñako Mendi Lasterketan parte hartzeko izen-ematea. Azaroaren 10ean izango da zita Urduñan. Aurtengo ekimenaren baitan, bi ibilbide eskainiko dituzte, 18 kilometrokoa eta 29 kilometrokoa. Apuntatzeko internet bidez egongo da aukera, Sportmaniacs webgunearen bidez. "Indarrak aurten bi mendi lasterketetan jarriko ditugu", adierazi du Anartz Gonzalez ki-deak. Modu horretan nahi dute

probaren kalitatea eta korrikarienganako harremana handitzea, "maratoiko indar guztiak proba motzago batean jarri nahi ditugu, lasterkariak zaintzean".

Maratoia bertan behera

Urduñako Mendi Maratoiari dagokionez, bertan behera utzi dute proba, lan arazoengatik antolakuntza taldea txikitu baita. Ekimena aurrera ateratzeko bolutario kopurura iristeko ere zailtasunak aurreikusi dituzte. Hargatik, "min handiz" adierazi dute urte honetan ez dela maratoirik egongo.

BOLOAK

Bea Isasi eta Bernardo Barcena txapeldun

Bea Isasi eta Bernardo Barcena gailendu ziren Kexaan Euskadiko Bola Txapelketan. Aiarar erara lehiatu ziren eta hainbat lagun batu ziren norgehiagokan parte hartu zein ikusteko. 56 jokalarik lortu zuten sailkapena finalean aritzeko eta, horrez gain, publiko ugari bertaratu zen. Bukatze-ko, bazkaria egin zuten partekatu zuten finalistek kiroltasun giroan. Bea Isasi txapeldunak adierazi du publiko andana elkartu zela eta egun oso polita izan zela.

errenta
2018 ARABA ÁLAVA



Errenta
eta Ondarea

■ Apirilaren 5etik ekainaren 25era

■ Informazio guztia:
araba.eus

**Zure talde lana**

Osasungintza, hezkuntza, gizarte eta kultura zerbitzuak... Horiek funtziona dezaten, talde lana behar da.

Zerga aitortpena egiten baduzu, zerbitzu publiko horiek eta behar dituzun ekipamenduak izatea bermatzen duzu. Hori da zure talde lana. Konsultatu aurkezteko epeak eta lekuak araba.eus-en.

**JARRI EZAZU ZURE IRAGARKIA hemen**

KOMUNIKAZIO KANPAINA BAT MARTXAN JARRI NAHI DUZU?

IDATZI

publizitatea@aiaraldea.eus

ZURE PRODUKTU, ZERBITZU EDO EKITALDIAK IRAGARRI NAHI DITUZU?

EDO DEITU

688 625 394 zenbakira

2 astean behin 10.000 ale banatzen dira Aiaraldea osoan

Eskualdean zabalpen handiena duen hedabidea

Aiaraldea txiki

Labirintoa



sekuentzia

- 1
- 2
- 3
- 4

Aurkitu labirintotik ateratzeko bidea, sekuentziari jarraituz. Gogoratu laukian banan-banan aurreratu behar direla, ezker, eskuin, gora edo behera eginez, baina inoiz ez diagonalean. Pasa dituzun laukietako hizkiak batu eta esaera zahar bat osatuko duzu, irudiko neskato lotiari oso ongi ematen diona, bide batez esanda. Puntu grisak hitzen arteko tartea irudikatzen du.

Idatzi hemen esaldia.



Emaitzak

Marraz itzazu lauki zurietan falta diren irudiak, dominoak zentzua izan dezan.

Kontra

Mundutik Aiaraledera

Ronald Woan




Aglahum Larosi

JAIOTERRIA
SAHARA (1981)

BIZILEKUA
AMURRIO

BIDAIAREN ARRAZOIA
OSASUN ARAZOAK

SAHARA



DESKRIBAPENA

Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa Mendebaldeko Saharan kokatuta dagoen estatua da. 1976. urtetik Marokogatik okupatua dago lurraldearen zatirik handiena. Gauzak hala, saharar asko Tindoufeko errefuxiatuen kanpalekuetan bizi dira orduz geroztik, Aljeriako mendebaldean.

AZALERA

266.000 kilometro koadro.

BIZITANLEAK

273.008 biztanle.

HIZKUNTZA

Arabiera eta gaztelania.

Argitaratzailea:

Aiaraldea Kooperatiba Elkarte
Tirada: 10.000 ale.
Maiztasuna: Hamabostekaria
Lege gordailua: BI-1230-2013
Posta elektronikoa:
egunkaria@aiaraldea.eus
agenda@aiaraldea.eus
agurrak@aiaraldea.eus
Publizitatea: publizitatea@komunika.eus
Tifnoa: 688 62 53 94
Helbidea: Nerbioi Kalea 12, behe. Laudio. Araba. 01400
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00
Web-gunea: www.aiaraldea.eus
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

ESKER BEREZIKO BANATZAILE BOLUNTARIOEI:

Xabier Ugalde Gulias, Jabi Asurmendi Sainz, Unai Llano Anda, Eider Solatxi, Alberto Martinez Gutierrez-Barquin, Ali Orue Del Valle, Garrastatxu Landaluze Okeranza, Genma Corbella Eguiluz, Unai Vicente Basterra, Estibaliz Bideguren Otaola, Aitor Fernandez de Pinedo, Endika Arribas Gulias, Eunete Molinuevo Olabarria eta Koldo Rodriguez

“Okupatutako Saharan zer gertatzen den ezkutatu egiten da”

Noiz utzi zenuen atzean Sahara?
2005ean egin behar izan nuen alde bertatik, 24 urterekin; baina bertan jaio eta hezi izanagatik, han bizi naizela sentitzen dut oraindik ere. Tindoufeko errefuxiatuen akanpalekuetan bizi nintzen, baina osasun arazoak medio atera nintzen lurraldetik, istriputik sendatzeko. Hango baliabideak oso murrizak dira.

Nolakoa izan zen bidaiaria?

Amurriora ez nintzen zuzenean etorri. Badajozen bi hilabete eman nituen, hegazkinak han uzten baikaitu. Amurrioren izeba bat nuen, horregatik etorri nintzen hona. Denbora bat pasata, ordea, Badajozera itzuli behar izan nintzen paperak eskuratzerara.

Nolako egoera bizi duzue Tindoufen?

Oso txarra. Hango klima ezber-

dina da, beroa jasanezina da. Ez dugu apenas urik, aire giroturik... edatea eta dutxatzea da bizirauteko modua.

Eta errefuxiatuen akanpalekuetan?

Bizi ezik, zaila da azaltzen, oso egoera gogorrean bizi gara. Urte asko daramatzagu borrokan... Gobernuz Kanpoko Erakundeek eskubideez hitz egiten dute, baina hitzak baino ez dira. Une honetan, okupatutako Saharan zer gertatzen den ezkutatu egiten da, ez da gatazka politikoz hitz egiten.

Gatazka politikoak zer nolako eragina izan du zuen egunerokoan?

Facebooken zuzenean ari dira emititzen, begira... Polizia jendea kolpatzen ari da, zaurituak daude uneoro... 2005etik ez dut ikusi telebista programa bat ere ez egu-

neroko albistegietan gatazka lantzen. Ez al dugu eskubiderik pertsona eta herri gisa? Gu ez gaude Europan nahi dugulako, eta ez da justua. Eskubideak hitzak baino ez dira. Espainia da guzti honen erruduna, Sahara marokoarren eskuzateagatik. Ez zaie interesatzen gure gatazka, horregatik isiltzen dute. Ea iristen den soluzioa, baina zaila ikusten dut.

Nolakoa da saharar komunitatea?

Amurrioren 20 familia saharar gaude. Jende oso umila eta irekia gara, Andaluzian bezala. Beti gaude laguntzeko prest... hemen, ez dakizue hori egiten. Saharan ohituta gaude elkar laguntzen... Niri oraindik ez zait inor hurbildu laguntzarik behar dudangaldetzen. Jendeak ezagutu gabe epaitzen gaitu, oztopo handiagoa da aurreiritziarena, hizkuntzarena baino gehiago.

Jendeak uste du gizarte laguntzak lapurtzera etorri garela, eta ahaztu egiten zaie jaten duten arraina Afrikako dela, edota oportetean doazen hondartzetako area gure lurretatik garraiatu dutela. Eskerrak eman beharko lizkigukete.

Jaioterriak bizitza baldintzatzen du?

Bai, dudarik gabe. Ez baduzu dokumentaziorik, ez zara inor. Ni, adibidez, haurdun etorri nintzen, diru sarrerarik gabe... Caritasera, Gurutze Gorrira eta Lanbidera joan nintzen eta inork ez zidan ezer eman. Oso mingarria da gutaz ezer jakin gabe jendeak epaitzea. Urte guzti hauetan bizilagun batek ere ez dit ateak jolaguntzarik behar dudangaldetzeko. Hori Saharan ez da gertatzen. Hemen, autoan sartzen naizen bakoitzean beti dago baten bat begira ea zer egitera noan, edo baloitik kuxkuxeatzen.

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA